

# iraultza

2012  
uda

164

26 de septiembre  
Huelga General

Maiatzaren Lehena

LABen 8. biltzarra

500 urte eta gero  
Nafarroa bizirik



**BIDE PROPIOA** egiteko aldarria





# iraultzen

LABen aldizkari nazionala 164. zkia. Uda

**ZUZENDARIA:**  
Sonia González

**ERREDAKZIO BURUA:**  
Zuriñe Etxeberria

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**  
Fidel Linazisoro

**INPRIMAKETA:**  
mccgraphics-elkar

**LEGE GORDAILUA:**  
SS. 734-77

**IRAULTZEN ALDIZKARIAREKIN  
KONTAKTUAN JARTZEKO:**  
Pokopandegi, 9, 2. Donostia 20018

**TELEFONOA:**  
943 32 64 67 / 943 22 44 00

**POSTA ELEKTRONIKOA:**  
iraultzen@labsindikaturia.org


**BAIONA**  
Coursic Karrika, 13.  
64100.  
Tf: 00 33 559 59 50 20

**BILBO**  
Errekalde Zumarkalea, 62, behe.  
48010  
Tf: 94 470 69 00

**DONOSTIA**  
San Blas, 1 behe.  
20013  
Tf: 943 22 44 00

**GASTEIZ**  
Fermin Lasuen, 13 behe. 01001  
Tf: 945 25 58 77

**IRUÑEA**  
Arga Ibaia kalea 12-14 behe  
31014  
Tf: 948 22 11 30



## BIDE PROPIOA EGITEKO ALDARRIA

**Kapitalaren eta Estatuaren eraso** artean heldu zitzaigun 8. Biltzar Nagusia; erantzun eta borroka gordinean murgilduta egin diogu aurre eztabaida prozesu zabalari. Momentu korapilatsua. Momentu guztiz egokia, hala ere. Zeren eta ildoak finkatzea eta erabakiak hartzea modu bakar eta ezinbestekoa baita zurrumbilo artean gure borroka norabidetzeko, erronken aurrean kohesioa lortzeko, gure helburretan berres- teko eta, zelan ez, LABeko militantzia osoa indarberriturik irteteko.

**Segidan heldu zaigu uda** eta, duela urtebete konstituzioaren erreforma burutzeko aprobetxatu zuten bezala, aurtengo uda estatu erreforma burutu berri dute.

Bankaren erreskatearen trukean hartu diren neurri ezberdinak –denak langile klase-

ak erreskate hori ordaintzeari begirakoak- ildo honetatik datoz. Ez dira neurri koiunturalak edota isolatuak, egiturazko aldaketa ekarri nahi duen neurri bortitz sorta baino. Kapitalismorik basatiena ezarri nahi dute Estatu osoarentzat eta, horretarako, eredu politiko zentralizatua behar dute.

**Behin baino gehiagotan errepikatu** izan dugu, krisiaz baliaturik Espainiar estatuak helburu maltzur bikoitza darabilela: batetik, langileriak urteetako borroka lortu dituen eskubideak lapurtzea espukulatzaileen eta kapital handien interesen onurarako eta lan-kapital gatazkan posizioak irabaztea; bestetik, estatuaren eta Euskal Herriaren arteko gatazka politiko- an, 78ko bidegurutzan egin bezala, berriro ere gure nazio eskubideen aldeko bidea neutralizatzea eta zapuztea, oraingo honetan birzentralizazio eta uniformizazio prozesu baten bitartez.

**Han hemenka kontrako ahotsak** entzuten badira ere, zenbait “eskuduntzak” eta “autogobernua” defendatzeaz aritzen badira ere, alferrikako ariketa da honezkerok guztiz finikiturik dagoen eredu babesteaz hitz egitea. Markoak politika pro- pioak egiteko balio ez badu, ondorio posible bakarra dago: beste marko bat behar dugu. Inoiz baino premia-koagoa da, Estatuak erabakitzen jarraitzen duten bitartean, egoera honetatik ez baikara irtengo, are gehiago, ez baita hau gelditzerik izango.

**Burujabetza prozesua** behar dugu geure etorkizunaz erabakitze-ko, langileen eskubideak ziurtatzeko tresnak bermatuko dizkigun marko berri bat eraikitze-ko, benetako aldaketa politiko eta soziala burutzeko. Burujabetza politiko eta ekonomi- koa behar dugu estatuak euren bidean eta euren erabakien gatibu eduki ez gaitzaten.

**Burujabetza prozesu hori martxan** da eta LABek determinazio osoz prozesu horretan parte hartzeko ez ezik, eragilea izateko eta inplikatzeko hautua egin du. Horixe izan behar da LABen aburuz euskal sindikalismoaren papera bidegurutze honetan, zabaldu-rik dagoen aldaketa prozesuan langileriaren interesak eta premiak agendaren erdian kokatzeko lan egi- tea.

**Biltzarrean esan genuen:** Euskal Herria eraiki behar dugu eta, bai, oraintxe da garaia, baina langileen Euskal Herria da eraiki beharrekoa, gai ekonomiko eta sozialetaz euskal langileriak erabakiko duen Euskal Herria, diruaren boterearen gai- netik langileriaren boterea nagusituko den Euskal Herria.

**Irailaren 26an kalera** irtengo gara. Madriletik ezarri nahi dizkiguten neurriak euskal eremuan aplika ez daitezela exijitu eta burutzen ari diren estatu erreforma oso honen aurrean Euskal Herriak hitza hartu behar duela eta Euskal Herriak dau- kala erabakia aldarrikatuko dugu. Menpekotasuna ala bide propioa; esklabutza ala herritar burujabeak herri burujabeak.



# gogora ekarri



## > BIDE ONETIK EMANDAKO PAUSOAK

Behin eta berriro hitz egin dugu estatuko alderdi hegemonikoen kalitate demokratiko eskasari buruz, botere judiziala beren esanetara jarriz. Epaitegi espainoletatik etorri diren azken erabakiak izan dira D3M eta Askatasunako auziperatuen absoluzioa eta Sorturen legeztapena. Horrela, bete egin da horri honetako gehiengoaren esijentzia. Baina hor ditugu, txanponaren beste aldean, 18/98, Segi, Bateragune... Egoera politikoa? normalizatu izateko bestelako erabaki politiko? judizialak ere behar dira, premiazkoak dira. Urrats gehiago, norabide honetan..



dacional reclaman no hacer distinciones: “a igual vulneración, idéntico reconocimiento”. Egiari Zor no pide la equiparación entre las personas afectadas por las distintas violencias, sino que “no se hagan distinciones, en cuanto al trato, entre víctimas en base al autor o el momento histórico” en que las personas sufrieron las conculcaciones de sus derechos. Los ejes de actividad y expresión pública de la fundación serán los siguientes: por un lado, el respeto, la consecución de una verdad completa, el reconocimiento y la reparación; por otro lado, exigen a las instituciones y la mayoría de partidos políticos reconocer y asumir la responsabilidad que han tenido en la vulneración de derechos humanos; asimismo, consideran la Comisión de la Verdad un instrumento fundamental; además, aunque son conscientes de que no esperan nada por parte de los tribunales españoles y franceses, no escatimarán en esfuerzos para conocer toda la verdad; y, por último, manifiestan su completo compromiso con el logro de una solución justa al conflicto aun por resolver. Siendo las razones y consecuencias del conflicto políticas, Egiari Zor trabajará para alcanzar la solución que posibilite un acuerdo político y democrático.

## >“EGIARI ZOR”: EN BUSCA DE UNA SOLUCIÓN JUSTA

“Ayudar a lograr una solución democrática”. Con este objetivo dos centenares de personas, que han sufrido en sus carnes la violencia de los estados español y/o francés o vieron cómo la sufrió un familiar, presentaron en Donostia a finales de abril la fundación Egiari Zor. Se trata de una fundación con espíritu constructivo que reivindica la memoria y la dignidad de todas las personas que como consecuencia de la represión de los estados y del conflicto han resultado muertas, heridas o torturadas. Reconociendo también el dolor de los demás, en el documento fun-



## >SENTENCIA FAVORABLE PARA LAS TRABAJADORAS DE INDUSAL

El Juzgado de lo Social nº1 de Bilbo ha dictaminado la nulidad de los traslados que Indusal preten-

día llevar a cabo contra 23 trabajadoras a diferentes plantas que la empresa posee en el Estado español, permitiendo de esta manera el mantenimiento de sus puestos de trabajo. En el fallo, el juez no ha dudado en determinar que existía una clara intención de realizar una persecución por razones de índole sindical hacia las personas afectadas por dicho traslado. Con esta sentencia queda demostrado que el traslado de las trabajadoras no era más que un despido encubierto, con el objetivo de castigar a un colectivo muy concreto, el de las trabajadoras que en 2008 realizaron una huelga para reclamar un convenio que eliminara las diferencias salariales por razón de género. Este fallo se suma a otras resoluciones, como la de Inspección y Delegación de Trabajo del Gobierno Vasco, que ya se pronunciaron en marzo en este mismo sentido desestimando el ERE presentado por la empresa.

Pese a que tanto LAB como las trabajadoras afectadas se felicitan por esta sentencia y agradecen el apoyo incondicional que han recibido durante estos duros meses de lucha, reconocen que se debe interpretar el fallo con la máxima cautela, por que tienen el convencimiento de que la empresa no va cesar sus intenciones de quitarse del medio a estas personas. Y que para ello, Indusal cuenta con la ayuda de los representantes en la empresa del sindicato USO, que haciéndose valer de su posición mayoritaria en el comité, ha llegado a ser la mano ejecutora de las prácticas de presión que ejerce la empresa a sus trabajadores.



## >SEKTORE PUBLIKOAREN ALDEKO OFENTSIBA

Ongizate estatua jopuntuan, etengabeko murrizketak burutzen ari dira administrazio ezberdinak zerbitzu publikoetan azken urteotan, hezkuntza zein osasungintzan, langile eta erabiltzaileen kaltetan. Ordezkapenak ez burutzea, lanaldia luzatzea eta langile publikoen soldaten beherakada... zintzo ari dira inposatzen Madriletik datozen murrizketak.

Honen aurrean, zerbitzu publikoen garapeneren aldeko ofentsiba indartu da, Nafarroan zein Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, greba, lanuzte eta mobilizazioekin. Indartsua izan da lantoki eta kaleetan emandako erantzuna. Langile eta erabiltzaileek, herritarrek orohar, gogor arbuia dute pribatizazio eta murrizketen olatua. Zerbitzu publiko, unibertsal eta doakoen aldeko aldarria ozen entzun da Euskal Herriko kaleetan.



## >MOVILIZACIONES POR EL ACUERDO MARCO SECTORIAL delegadas y delegados del metal realizaron asambleas y movilizaciones en Bilbo, Donostia y Gasteiz, frente a la patronal, con el objetivo de

denunciar el bloqueo en las mesas de negociación y defender la negociación colectiva. De esta forma, se ha querido denunciar el papel que están jugando las patronales con su actitud entorpecedora y dilatoria. Quieren aprovecharse de la ventaja que les dan las reformas y, por ello, no tienen prisa en llegar a acuerdos, utilizando éstas para quitar derechos. Sin embargo, hay alternativa con la que defender los intereses de los y las trabajadoras vascas. El Acuerdo Marco Sectorial es una herramienta legal que posibilita llegar a acuerdos que blinden nuestra negociación colectiva, dotando a los convenios provinciales de prevalencia aplicativa ante los convenios estatales. Sin embargo, la patronal opta por el bloqueo, algo que irremediable-

mente va a traer una mayor confrontación al sector. Es inaceptable regalar una desregulación de la negociación colectiva al amparo de las reformas y aceptar que nos roben los derechos conseguidos tras la lucha de tantos años. Por eso, se ha hecho un llamamiento al resto de sindicatos a defender nuestro modelo de negociación colectiva y nuestros convenios provinciales, ya que son el único medio de asegurar las condiciones laborales y salariales para todas y todos los trabajadores del sector.

## >ALDARRIKAPEN FESTA UKATU DU AZKUNAK

**Maiatzaren 6an, aldarrikapenari lotutako festa egitekoa zen Bilboko Gran Via kalean** igande eta jai egunetan dendak irekitzearen aurka. Besteak beste, haur jolasak eta helduen arteko sokatira egitea zen asmoa. Alta, aldarrikapen ekimen hau bertan behera utzi behar izan zuten Azkuna alkateak baimena ukatu baitzuen. Hasiara batean, baimena emateko deitzaileek aseguruia kontratatu behar zutelari jarri zuten baldintzatzat Udaletxeak. Aseguruia lotuta zegoela, ordea, udal arduradunek baimena bera ukatu egin zuten. Eraso berri honen aurrean, aldiz, ELA, LAB eta UGT sindikatuek elkarretaratze jendetsua deitu zuten gai honen inguruan gertatzen ari dena salatzeke.



## >ACUERDO EN METRO BILBAO TRAS MÁS DE MEDIO AÑO

Los sindicatos que componen el comité de empresa en Metro Bilbao, han logrado alcanzar un acuerdo tras un largo conflicto. Éste fue refrendado por un 86,5% en la asamblea y tanto el comité como la empre-

sa lo firmaron en el Consejo de Relaciones Laborales (CRL), después de ocho reuniones en tres semanas.

A través de la negociación se ha conseguido afrontar el conflicto de manera global y evidenciar la actitud de la dirección hasta la fecha. La única "pega" que describe el comité es que este mismo acuerdo podía haberse alcanzado mucho antes, evitando de esta manera todo tipo de movilizaciones, declaraciones, denuncias, molestias a usuarios y usuarias del metro. Y, especialmente, se podía haber evitado la criminalización sufrida por la plantilla. Además, en el acuerdo se han incluido dos nuevas cláusulas. Por un lado, se recoge la creación de un foro de carácter mensual entre dirección y sindicatos que permita que las relaciones laborales vayan recuperando el sitio que les corresponde. Por otro lado, se incluye la posibilidad de, en caso de posibles incumplimientos, acudir a las personas del CRL que han colaborado en la consecución del acuerdo.

Langile zein herritar andanak deialdiarekin bat egiteaz gain, lehendabiziko aldiz denda bat ere ez zituen atean ireki. Azken mobilizazio honetan inoiz baino argiago geratu zen jendarteak igande eta jai egunetan denden irekierarik ez duela nahi. Merkataritzako langileek familiarekin beren aisiaz gozatzeko eskubidea dutela aldarrikatu zuten eta horren alde borrokatuko direla eman zuten

jakitera. Edozein interes politiko zein kate komertzial handiren interesen gaintik urteetan bereganatutako eskubideak baitaude. Jendarteak ez du irekiera gehiagorik nahi eta, kate komertzial handi batzuen interesak defendatzen utzi eta Azkuna jaunari, PSEri, PPri eta PNVri behingoz aldarrikapena entzuteko eskatu zieten, horretarako izan baitziren hautatuak.

26 de septiembre, huelga general

# Euskal Herria debe decidir su camino

6>7

**EL RESCATE AL SISTEMA FINANCIERO, CAUSANTE EN GRAN MEDIDA DE LA SITUACIÓN ECONÓMICA QUE ESTAMOS VIVIENDO,** tiene precio puesto desde Europa, un precio de recortes brutales que pretenden que paguemos la mayoría social. El estado español alega que no tiene capacidad de actuación, pero, al igual que en el conjunto de Europa, juega a preservar y cuidar unos intereses muy concretos: intereses multinacionales y, principalmente de la banca, sea ésta alemana o española.

## **Reforma de estado para instaurar una dictadura económica**

No nos encontramos ante una medidas coyunturales, ni ante una serie de recortes que permitan abordar una dura fase económica. Nos encontramos ante toda una reforma de estado cuyo único objetivo es instaurar el modelo capitalista más salvaje.

Tras esta batería de medidas y de reformas (las ya aplicadas y las que están en cartera), se está destruyendo el sector público: sin recursos, sin capacidad y completamente residual. Un sector público que ni sea motor ni tan siquiera regulador de la economía y un sector público que no preste ni servicios ni protección social a la población. Y se siguen promoviendo medidas para que unos pocos sigan acumulando riqueza y especulando a costa de la mayoría social: la política fiscal no es un instrumento para la redistribución de la riqueza, sino un instrumento para el puro saqueo, ejemplo de ello es la brutal subida del IVA tras aplicar una amnistía fiscal a quienes han defraudado a manos llenas.

El estado ha hecho dejación de todas sus funciones de mediador y garante de derechos y ha decidido convertirse en un simple instrumento en beneficio de los intereses de unos pocos: proveer y desviar recursos públicos al



ámbito privado y garantizar el control social.

## **Involución y centralización de Estado**

La forma antidemocrática, a golpe de decreto y ley básica, es la forma que han adoptado para instaurar en lo político un modelo totalmente centralizado y uniformizado. El “café para todos” del ’78 ya no sirve y es necesario transformarlo: un modelo económico único con un marco político único

Hablar de invasión de supuestas competen-

cias cuando el estado español ha decidido que es el momento de finiquitar el modelo autonómico es un brindis al sol sin recorrido alguno.

Seguir atada a las políticas que está realizando el Estado español es un suicidio político y económico para Euskal Herria. Un suicidio económico porque las medidas que se están adoptando no sirven ni para crear empleo ni para estimular la economía; recortar salarios mientras suben los precios y los servicios básicos se privatizan y recortar prestaciones mientras crece el desempleo es sinónimo de pobreza. Y un suicidio político, porque están finiquitando la capacidad y los instrumentos para hacer políticas propias que nos permitan salir de esta situación. Si este marco no sirve para hacer políticas propias, la única conclusión posible es que necesitamos otro que sí lo posibilite.

### **Hay alternativa para Euskal Herria: o subordinación o salida propia**

Lo que está en juego en este momento es si se nos va a imponer ese camino a ninguna parte. La alternativa existe y es posible si se toman tres decisiones: no aplicar las medidas del gobierno español; anular los recortes establecidos en los presupuestos de las instituciones de Euskal Herria; y poner sobre la mesa un plan institucional nuevo e integral para hacer políticas que nos permitan salir de la crisis. Un plan definido sobre cuatro pilares:

- Justicia fiscal
- Desarrollo del sistema de servicios públicos
- Creación de un sistema financiero público para Euskal Herria
- Un plan real de creación de empleo y garantía de una renta mínima, apostando por políticas de reparto del trabajo y la riqueza

La opción es clara: o la subordinación y la uniformización de un estado que ha optado por la no salida a la crisis, o la posibilidad de dar una salida propia desde la capacidad de hacer políticas y tomar decisiones en nuestro ámbito.

LAB demanda que se convoquen consultas populares tanto en Navarra como en la CAV

## Principales medidas

### 1. ATAQUE A LOS DERECHOS DE LAS PERSONAS DESEMPLEADAS

- Se considera al colectivo de personas desempleadas como defraudadoras de recursos públicos y no como titulares de derechos.
- La cuantía de las prestaciones por desempleo se rebaja a partir del sexto mes del 60% al 50% de la base regulatoria.
- Se suprime el subsidio para mayores de 45 y el de 52 pasa a los mayores de 55

### 2. RECORTE DE LAS GARANTÍAS DEL FOGASA

- Limita la cantidad a abonar al doble del SMI (antes era el triple), por el número de días de salario pendiente de pago, con un máximo de 120 días (antes el máximo eran 150 días)

### 3. ATAQUE A LOS DERECHOS DE LOS TRABAJADORES Y TRABAJADORAS DE LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

- Ataque a la negociación colectiva que queda derogada por las medidas que se deciden en Madrid y que se aplicarán con carácter prioritario a lo negociado en los acuerdos.
- Se añade a las congelaciones salariales suspender la 2ª paga extra (Navidad) para personas empleadas públicas. No se compensará en el salario, sino a partir de 2015 en forma de aportaciones a fondo de pensiones, siempre y cuando se cumplan los objetivos de déficit.
- Reducción de días de libre disposición.
- Reducción de derechos sindicales.
- Equiparar el tratamiento de las incapacidades temporales al sector privado, es decir, no se complementará el salario al 100%.
- Movilidad de las y los empleados públicos.

### 4. FISCALIDAD REGRESIVA

- Sube el IVA. El tipo general pasa del 18% al 21% el reducido del 8% al 10%. Algunos productos y servicios pasan del tipo reducido al general (es decir, del 8% al 21%). Algunos materiales escolares pasan del tipo superreducido (4%) al 21%.
- Subida de los impuestos especiales
- Rebaja de las cotizaciones sociales de dos puntos hasta 2014: un punto en 2013 y otro en 2014. La medida ha sido reclamada insistentemente por los empresarios, que verán así reducido el coste laboral.

### 5. RECORTE DE LOS DERECHOS DE LAS PERSONAS DEPENDIENTES

- El Gobierno ha rebajado en un 13% el llamado «nivel mínimo», el dinero que reciben las comunidades autónomas por cada persona dependiente en función de su gravedad.
- Se reduce en un 15% la prestación económica de los y las cuidadoras familiares, dejando libertad a las comunidades autónomas para agudizar esta reducción
- Se simplifican los grados de reconocimiento de dependencia (de seis niveles pasa a tres grados) y se pospone a 2015 la incorporación de nuevos usuarios de Grado 1, es decir, dependientes moderados
- Se suspenderán el 31 de agosto las cotizaciones a la Seguridad Social que se pagaba a familiares que cuidaban de una persona dependiente en casa.

### 6. LIBERALIZACIÓN DE HORARIOS Y PRIVATIZACIONES

- Desregularización de los horarios comerciales, ampliación de horarios y apertura en domingos y festivos
- Liberalización de los servicios de transporte ferroviario, portuario y aeroportuario y en algunos casos privatización.
- Reducción y privatización de empresas públicas

en este sentido. Ésa es la decisión que hay que adoptar y le corresponde a la sociedad de Euskal Herria tomarla y al ámbito político respetarla. Debemos pasar del “aplico porque es obligatorio” a “no puedo aplicar porque la sociedad de Euskal Herria lo ha rechazado”.

El 26 de septiembre vamos a llenar las calles de Euskal Herria con un objetivo: que todas esas medidas no sean aplicadas en nuestro ámbito y que ante esta reforma de estado sea nuestro pueblo en que tome la palabra y la decisión. ■

# Primero de Mayo

# Soberanía económica y política

8>9

**LA SOBERANÍA ECONÓMICA Y POLÍTICA SE PRESENTA COMO UNA NECESIDAD URGENTE E IMPERANTE PARA AVANZAR EN NUESTRAS REIVINDICACIONES QUE SON JUSTAS, LEGÍTIMAS Y LAS APOYA LA GRAN MAYORÍA SOCIAL.** “Hoy, la cuestión a decidir es si la agenda de lo que pasa en Euskal Herria se decide en función de los viernes de Rajoy o si somos los agentes políticos, sociales, institucionales y sindicales los que decidimos cuál es nuestra salida y dónde está el modelo económico y social que le va a permitir a este pueblo tener un futuro digno garantizado, tanto como pueblo, como clase trabajadora que somos”. Este fue el último mensaje que la secretaria general de LAB, Ainhoa Etxaide, lanzó a las miles de personas que se movilizaron en Bilbo al hilo del Primero de Mayo.

Al igual que en la capital vizcaína, LAB se manifestó en las otras tres capitales de Hego Euskal Herria, en Baiona y en Maule y también en otras trece comarcas de la geografía vasca bajo el lema “Langileon Euskal Herria helburu.

Lotu borrokari”. En total, fueron más de 20.000 trabajadores los que salieron a la calle. Por ejemplo, hubo movilizaciones descentralizadas en Araba (en Laudio y Oion), en Bizkaia (en Arrigorriaga, Astrabudua, Durango, Sestao, Lekeitio y Gernika), en Gipuzkoa (en Azkoitia, Eibar, Irun y Tolosa) y en Nafarroa (en Altsasu, Lizarra, Tafalla y Tuter).

**La lucha mantendrá vivos los derechos que ha peleado la clase trabajadora durante muchos años**

Tal y como remarcó Ainhoa Etxaide en su intervención, “todo lo que está pasando desde que Rajoy ha decidido seguir con las reformas que inició el PSOE, diga lo que diga Patxi López, nos reafirma más si cabe en lo que siempre hemos dicho: el marco estatutario no permite a este pueblo decidir libre y democráticamente su futuro, no nos garantiza tener los instrumentos políticos e institucionales necesarios para desarrollar un modelo económico y social propio”. Por lo que el marco estatutario actual resulta ser “el principal obstáculo para que los y las trabajadoras avancemos en nuestros intereses, por que mientras le garantiza a la patronal que va a tener todo lo necesario para imponer sus medidas, nos roba a la clase trabajadora la capacidad de avanzar en nuestras demandas”.

## “Suicidio político”

Hacer seguidismo de las políticas que el Gobierno de Rajoy está imponiendo es un “suicidio político, económico y social”.





subrayó Etxaide. En definitiva, es condenar a este pueblo a diluirse en la ruina de un Estado que es incapaz de construir alternativas a sus problemas estructurales. Es hipotecar nuestro futuro en un Estado que por no tener una oferta real ante las demandas políticas y sociales de este pueblo siempre ha optado por la misma terapia fracasada: intentar neutralizarnos por la fuerza y por la vía de la imposición.

Mariano Rajoy ha confirmado que cada viernes dará una “campanada” y la clase trabajadora se pregunta qué más nos pueden quitar. “Sinceramente, mucho”, sentenció Etxaide. “Primero, por que están dispuestos a hacerlo; segundo, por que todavía tenemos mucho que perder, podemos hacer una larga lista con los posibles siguientes recortes”. No obstante, en este Primero de Mayo LAB decidió no hablar de lo que está dispuesto a hacer el Gobierno español, sino de lo que la clase trabajadora está haciendo y está dispuesta a hacer en Euskal Herria.

La soberanía económica y política se presenta no sólo como una opción, sino como una necesidad. “Una necesidad urgente e imperante”. El

futuro de Euskal Herria se está decidiendo en marcos ajenos a nuestra voluntad, por lo que además de reivindicar el derecho a decidir “hay que ejercerlo”, insistió Etxaide. “Vamos a decidir cuáles son y dónde tienen que estar los pasos que permitan a la clase trabajadora. No sólo para reivindicarlos, sino para avanzar también en nuestras reivindicaciones que son justas, legítimas y las apoya la gran mayoría social”.

Durante años, a la clase trabajadora nadie le ha regalado nada y los derechos han sido conquistados mediante la lucha. Es la lucha la que ha mantenido vivos esos derechos y, ahora que nos los están robando, es con la lucha como los recuperaremos. Por eso, como remarcó la secretaria general ante miles de trabajadores, “es hora de decidir si la agenda de Euskal Herria la determinan los viernes de Rajoy o los agentes institucionales, políticos, sindicales y sociales de este país por que para hacer frente a este reto hay una mayoría dispuesta a que hagamos nuestro camino, para buscar una salida propia a la crisis y que garantice un futuro digno”. ■



## Herri ordezkaritza

### Hego Uribe-Arratia

Arrigorriaga: 500

### Tolosa-Goierri

Tolosa: 800

### Gasteiz-Lautada

Gasteiz: 4.000

### Oarso-Bidasoa

Irun: 1.000

### Sakana-Larraun

Altsasu: 350

### Busturialdea-Lea Artibai

Lekeitio: 450

Gernika: 300

### Kosta-Urola

Azkoitia: 400

### Debaldea

Eibar: 500

### Donostia-Hernani

Donostia: 3.000

### Iruñealdea-Pirineoak

Iruñea: 2.000

### Aiara

Laudio: 350

### Durandaldea

Durango: 600

### Ezkerraldea

Sestao: 1.500

### Eskumaldea

Astrabudua: 500

### Bilbo

Bilbo: 3.000

### Errioxa

Oion: 1.000

### Erdialde Erribera

Lizarrá: 300

Tafalla: 300

Tutera: 300

### Ipar Euskal Herria

Baiona: 400

Maule: 150

Hendaia: 150

## 8. biltzarraren ondoren, **LAB apustu berrietarako prest**

&lt;10

**LABen 8. Biltzar Nagusia burutu zen ekainaren 21 eta 22a bitartean Barañainen “Orain da garaia. Eraiki dezagun langileon Euskal Herria” lemapean. Hainbat hilabetez luzatu den eztabaida prozesuaren ondoren, azken lau urteotako lana jasotzen duen kudeaketa txostena onartu zuten LAB sindikatuko biltzarkideek. Ponentzia politiko-sindikala, antolaketa ponentzia eta hemendik bost urtetarako zuzendaritza berria ere onartu egin zen.**

Eskualdeetan, herrietan, sektoreetan edota atal sindikaletan, besteak beste, urte osoan zehar luzatu den eztabaida prozesuari amaiera eman zitzaion bi eguneko lan betearekin. Biltzarreko mahaiaren osaketarekin abiatu zen prozesua Barañaingo Auditorioan; ondoren, emendakinen eztabaida eta bozketari ekin zitzaion. Modu honetan, eztabaidatu, bozkatu eta finkatu dira hemendik eta bost urteetara sindikatuaren lan ildoak izango direnak.

Biltzar Nagusian 500 biltzarkideek parte hartu bazuten ere, aurretik emandako eztabaida prozesuan, guztira, 2.500 kide baino gehiagok hartu du parte. Orotara, antolakuntza ponentziari zein politiko-sindikalarari eginiko emendakinak 230 izan dira, 90 eta 140 emendakin, hurrenez hurren.

Bozketei dagokienean, ia aho batez onartu ziren ponentziak. Politiko-sindikalaren kasuan, 431 biltzarkidek baiezkoa eman zuten eta abstentzio bat egon zen. Antolakuntza ponentziari dagokionez, 376 baiezko jaso zituen, ezezko bat eta bost abstentzio. Azkenik, kudeaketa txostenak, azken

lau urteetan sindikatuak egin duen ibilbidea azaltzen duenak, 447 bozka baiezko lortu zituen baita sei abstentzio ere. Egunari amaiera emateko, idazkari nagusiarekin batera, nazio komitea hautatzeari ekin zitzaion eta aldeko bozken %88az izan zen berretsia.

Nazioarteko ordezkariak ere euren lekua izan zuten Biltzarreko bi egunetan. Kuba, Grezia, Groenlandia, Kanariar Uharteak eta Vietnameko kideek biltzarkideen aurrean hitz egin zuten eta Munduko Sindikatuen Federazioko idazkari nagusiaren ondoko den Valentin Pachok ere interbentzioa izan zuen.

Euskal Herriko hainbat eragile ere elkartu zen Barañainen. EPPK eta gazte mugimenduko ordezkariak hitza hartu zuten ekainaren 21ean eta 22an Ezker Abertzalea eta ELAkoak. Sindikatuen artetik, bertan egon ziren ELA, STEE/EILAS, ESK, EHNE, HIRU, CCOO Euskadi, UGT Nafarroa, UGT Euskadi; alderdien artetik Ezker Abertzalea, Eusko Alkartasuna, Aralar eta Alternatiba eta bestelako eragileen artetik Herrira, Bilgune Feminista, Gaindegia,



Elkartzen, Kontseilua, EHE, Sortzen-Ikasbatuaz, Bai Euskal Herriari eta Askapena.

Biltzarreko unerik hunkigarriena Rafa Diez idazkari nagusi ohiak El Duesoko espexetik bidalitako gutunak ekarri zuen. Sindikatuaren ibilbidea goraiatu zuen, eta datozen erronketarako animoak eman. “1976an sindikatuan sartu nintzenetik, asanblada nazional eta biltzar guztietan hartu dut parte. Gaur ez nago Barañainen fisikoki, baina, nire pentsamendua eta bihotza zuen artean daude”.



## Azken lau urteotako bilana **lurrikara politiko eta ekonomikoaren aurrean** erantzun eta eraiki

Gertakari garrantzitsu asko bizi izan ditugu eta urrats esanguratsuak egin dira orain lau urte BECen 7. Biltzar Nagusia burutu zenetik. Langileontzat ez dira urte errazak izan, are gehiago, gogorak eta larriak izan direla esan beharra dago. Bolo-bolo krisia gehien entzun eta erabili den hitza izan bada ere, besterik ere badago. Esate baterako, konponbide demokratikoa, aldaketa politiko eta soziala, independentismoaren eraberritzea edota euskal sindikal-gintzaren bategitea.

Aldaketa sakonak ekarriko dituen garaia bizitzen ari garela ez du inork zalantzan jartzen eta, horregatik, okertzeko beldurrik gabe, urte hauek guztiontzat erabakigarriak izango direla esaten dugu, izan ere, gaur egun arte ezagutu dugun eredia aldatzen ari delako. Lan harremanetan, eredu sozialean, sistema finantzieroa zein marko juridikoan eta politikoan ezer ez da berdin izango etorkizun ertain eta luzean. Testuinguru honetan egin zuten LABek bere ariketarik garrantzitsuena, sindikatuaren borroka izango dena erabaki duen Biltzarra burutu baitzuen Barañainen.

Hasiera batean, krisi finantziero bat zena krisi ekonomiko larri eta orokor bilakatu zen berehala eta, benetako errealitatea nagusituz, krisiaren dimensio politikoa bere gordintasun osoan agertu zen ondoren. Gobernuak errealitatea ukatzen eta ezkututzen saiatzeko dira oraindik eta hartzen dituzten neurriek egoera okertu besterik ez dute egiten. Arazoaren jatorriei begiratzea saihestu eta muinera jotzen ez bada, konponbiderik ez da iritsiko. Eta hori da azken lau urteetan gertatu denaren gako nagusia.

Lehendabiziko momentutik alternatibaren bidea hartzea, krisia sortu duen eredia auzitan jartzea eta krisiaren atzean dauden politikak aldatzea baztertu zuten.

Ukaezina da 8. Biltzar Nagusia burutzeko momentuko datuak kezkarriak direla oso. Lau urteotan, 146.000 lanpostu baino gehiago suntsitu dira; 200.000 langabetu baino gehiago daude Euskal Herrian, hauetatik erdia emakumeak dira; prestaziorik gabe daudenen kopuruak ere gora egin du, langabetuen %47ak ez du prestaziorik jasotzen, duela lau urte %28az hitz egiten genuen.

Konponbidetik gehiago urruntzen gaituen Espainiako interbentzioa ere iritsi da eta Nafarroako eta Gasteizko gobernuek politika propioak egiteko aukera baztertzen jarraitzen dute. Beste behin, nabarmendu behar da instituzio hauek hartutako bidea suizidio politiko eta ekonomiko dela, Estatu espainarraren egiturazko krisiei eta horiek gainditzeko ezintasunari lotuta jarraitzera behartu nahi gaituztelako Euskal Herriak bere bidea egin dezakeela eta bide horrek eskaintzen dituen aukera ekonomiko eta sozialak benetakoak direla jakin arren.

Aipatu bezala, krisiak zeharo markatu ditu 7. Biltzarretik hona igaro diren urteak, baina agenda ez da horretara soilik mugatu. Gatazka historikoa konpontzeko prozesua martxan dela, mapa instituzionala aldatu duten aliantza estrategikoak eraikiak direla eta hainbeste borrokatu ditugun aldaketa politiko eta sozialak burutzeko prozesu politikoan urrats erabakigarriak egin ditugula burutu da kongresua.

# Nazioarteko borroka partekatuz



<12

Zabala eta oparoa izan zen oso “Erantzun sindikala mundu mailako krisi kapitalistaren aurrean” izenburupean Ipar Hegoa fundazioak eta LAB sindikatuaren Nazioarteko Idazkaritzak antolatutako jardunaldian parte hartu zuen nazioarteko ordezkariak. Sindikatuaren 8. Biltzarrari hasiera eman baino egun bat lehenago Iruñeako Erizaintza Eskolan bildu ziren hogeita hamar herrialde baino gehiagotik etorritako ordezkariak, beren borroken berri emateko asmoz.

Egun, herri langile oro mundu mailako krisi kapitalista sakonean murgiltuta dagoela eta herriek klase menderatzaileen ofentsiba gogorra jasaten dutela abiapuntutzat hartuz, mugimendu sindikalak horri guztiari aurre egiteko aurrera eramaten dituen erresistentzia borroka eta prozesu eraldatzaile desberdinen topalekua izan zen Erizaintza Eskolako aretoa. Zentzu honetan, krisi kapitalistak eta klase menderatzaileek inposatutako neurriei erantzuteko hainbat kontinenteetako sindikatuen esperientziak eta borroka sindikalak partekatzeko aukera paregabea suertatu zen. Besteak beste, prozesu iraultzaileei laguntzen dieten sindikatuek, erresistentzia borroketan murgildutakoek edota estaturik gabeko nazioen askapen nazionalari askapen soziala txertatzen dioten sindikatuek hamaika irakaspen barreiatu zituzten solasaldira gerturatu zirenen artean.

Herrialde ezberdinetako esperientziak azaltzeaz gainera, ondorengo bi egunetan LABeko Biltzar Nagusian ere gonbidatu bezala parte hartu zuen nazioarteko ordezkariak zabal honek

hainbat ebazpen onartu zuen. Batetik, klase sindikalismo koordinatu eta bateratuaren bidez borrokatzeak berebiziko garrantzia duen heinean, klase sindikalismoaren koordinazioaren aldeko ebazpena adostu zuten. Zentzu honetan, egungo europar eraikuntza ereduaren aurka agertzen direnez, sindikatu, mugimendu sozial eta erakundeen arteko erantzun agenda bat koordinatzea oso beharrezkotzat jo zuten. Era berean, kontinente zaharrek langile klasearen mende egongo den Herrien Europa Soziala aldarrikatu eta aldi berean, Nazioarteko Diru Funttsak, Europako Komisioak eta Europako Banku Zentralak inposatu nahi duten kapitalaren eta Estatuaren Europa baztertu zuten.

Bestetik, herri kubatarren eta herri saharauia- ren aldeko ebazpen bi adostu ziren. Honen bitartez, Kubako herriari, kubatar iraultzari eta iraultzaren lorpen eta konkistei elkartasuna eta babesa adierazi nahi izan zioten jardunaldian parte hartu zuten sindikatuek. AEBek beste potentzia inperialisten laguntzarekin ezarritako Kubako herriaren aurkako blokeo ilegal eta kriminalaren amaiera exijitzeaz gain, Kubaren askatasunaren eta burujabetzaren alde borrokatzeagatik eta uharteko herritarrak defendatzeagatik AEBetako espetxetan zigorra betetzen ari diren Rene, Antonio, Fernando, Gerardo eta Ramon heroi kubatarren askatasunaren aldeko kanpainekin jarraitzeko konpromisoa berretsi zuten.


Era berean, beste ebazpen baten bitartez, elkartasuna eta babesa helarazi zioten Mendebaldeko

Saharako herriari eta dagokion autodeterminazio eskubide zilegiari. Mendebaldeko Sahara legez kanpo okupatzen ari den Marokoar estatua eta gobernua salatu eta herrialdea berehala deskolonizatzea exijitu zuten nazioarteko ordezkariak.

## Euskal prozesuaren aldeko ebazpena

Azkenik, nazioarteko jardunaldian bildutako ordezkariak Euskal Herriko prozesu politikoa- ren aldeko ebazpena sinatu zuten. Bizi dugun momentu historiko honetan, ezker abertzaleak bultzatutako prozesu aldebakarrekoarekin eta demokratikoarekin bat egin zuten. Sinatzaile- en aburuz, prozesuak Euskal Herria espainiar eta frantziar estatuaren arteko gatazka politikoa bide demokratikoen bidez gainditu ahal izateko urrats positiboak emateko aukera ekarri du, esaterako, 2011ko urriko Donostiako Nazioarteko Bake Konferentzia, non Kofi Annan bezalako nazioarteko pertsonalitateek espainiar gobernuari negoziazio bideak zabaltzeko eskatu zieten euskal jendarteren gehiengoaren nahia errespetatuz.

Hala ere, bi estatu menderatzaileek Euskal Herriari bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea aitortzeari uko egin eta bide errepresiboa mantentzen temati jarraitzen dutela salatu zuten. Modu honetan, lan politikoa egiteagatik espetxeratuta dagoen LAB sindikatuaren Idazkari Nagusi ohi Rafa Diez Usabiaga berehala askatzeko eskakizunarekin bat egin zuten.



**Ricardo Castro.**  
CUT. Galiza.

## **Nueva fase política en Euskal Herria**

Por un lado, personalmente entiendo que el inmovilismo de los estados español y francés era esperable, por lo menos en una primera fase. De hecho, sus declaraciones iniciales siempre son: “conseguimos vencerles”, “han sido derrotados”... Si dan el mínimo paso de reconocimiento están reconociendo la lucha que no han querido reconocer desde hace 50 años. En este sentido, me parece lógico que en principio hasta medio plazo no vayan a cambiar, pero tampoco será de una manera muy explícita, muy pública. Supongo que será más por trastienda.

Entendemos que este es un proceso que aparece tras un debate político intenso y demuestra la inteligencia del pueblo vasco. En el contexto actual en el que estamos esa vía política es la que está precisamente dejando sin argumentos al Estado y demuestra que el problema es otro.



**Divanilton Pereira.**  
CTB. Brasil.

## **El papel del sindicalismo ante una potencia en desarrollo**

Brasil está viviendo un momento inédito en su historia, desde 2003 fuerzas democráticas y populares están formando país y eso esta posibilitando que el gobierno adopte una agenda y priorice las necesidades internas de su pueblo. Lógicamente, todavía queda mucho por hacer.

CTB trabaja dentro y fuera del gobierno cómo se deben realizar las grandes transformaciones. Esa disputa y presión política del movimiento sindical gana nueva dimensión con la crisis capitalista y Brasil no es inmune a la crisis. En este sentido, el movimiento sindical intensifica su trabajo para que la agenda del Gobierno no vaya a provocar ataques contra los derechos sociales del pueblo trabajador brasileño. Nos basamos en la preservación y la ampliación de los derechos sociales, eso lo que CTB defiende y así actuamos.



**Sotiris Zarianopoulos.**  
PAME. Grecia.

## **Políticas neoliberales con excusa de la crisis**

La crisis del capitalismo cada vez está siendo más profunda. El caso de Grecia puede aplicarse en Irlanda, Portugal, Italia, estados español y francés... Por un lado, el sistema ayuda a bancos y monopolios; y, por otro, suprime ayudas y pensiones. No existe una solución sencilla para este problema. La sociedad y la clase trabajadora, en general, tiene que superar el miedo, tienen que agruparse, ser militantes, tienen que organizarse... El objetivo es que todo el poder que concentran los gobiernos pase a las manos de la clase trabajadora. Esta es la conclusión que hace PAME. Cualquier otra solución que venga de la mano de los neoliberales, socialdemócratas, centro-izquierda... diciendo que la Unión Europea o el capitalismo va a ser más amigable con las personas es mentira. Nadie debe creérselo. No hay solución sin conflicto.



**Raymundo M. Navarro.**  
CTC. Cuba.

## **Alianzas ante el imperialismo**

La experiencia del movimiento sindical cubano, que se declara anticapitalista y antiimperialista, se basa en el elemento fundamental de la unidad. No como concepto, sino la unidad del movimiento sindical en la nación. El principio de la unidad es elemental, más cuando el capitalismo y el imperialismo yanqui usa en su ideología “divide y vencerás”.

Otro elemento fundamental es que el movimiento sindical en el mundo solo no va a poder enfrentar los males del capitalismo. Por tanto, hay que contribuir a la alianza con los movimientos sociales. Si no aprovechamos una plataforma de acción común nosotros seremos más débiles. El reto del movimiento sindical no es sólo ser de tipo reivindicativo, sino de reclamar los derechos de los trabajadores. Vincular sindicalismo de tipo reivindicativo y socio-político es fundamental.

## **Nazioarteko ordezkariak**

Andaluzia **SAT**  
Aosta **SAVT**  
Aragoi Intersindical de Aragón **IA-CUT**  
Argentina **ATE** eta **CTA**  
Asturias **CSI**  
Brasil **CTB**  
Bretainia **SLB**  
Britainia Handia **RMT**  
Galizia **CIG** eta **CUT**  
Grezia **PAME**  
Groenlandia. **SIK**  
Guadalupe **UGTG**  
Herrialde Katalanak **Intersindical CSC, IAC** eta **COS**  
Italia **USB**  
Kanakia **USTKE**  
Kanariar Uharteak **Intersindical Canaria**  
Korsika **STC**  
Kuba **CTC**  
Portugal **CGTP-IN**  
Sahara **UGTSARIO**  
Sardinia **CSS**  
Turkia **Tekgida-Is - DISK**  
Txipre **PEO**  
Venezuela **UNETE**  
Vietnam **VGCL**  
**UISTAAACT-**  
Merkataritza **FSM**

# Subjekto aktibo izan behar du sindikatuak datozen urteetan

<14



Euskal Herriaren etorkizun politiko eta ekonomikorako erabakigarria izango da datozen urteetan ematen diren mugimenduak eta LABek ezin du horren begirale izan, subektu aktiboa baizik. Testuingurua hau izanda, ponentzia politiko sindikalak fase berri honetan hori zertan gauzatzen den galderari erantzun nahi dio. Ponentzia guztietan bezala, honetan ere, egotzaren azterketa bat egiten da eta nazioarteko ikuspegiari ere atea irekitzen zaio. Lurrikara ekonomiko honen erdian, LABek argi du konfrontazioa indartu behar dela eta, zentzu honetan, kudeaketa txostenean ondo agertu den moduan, azken lau urteetan burututako borrokari segida eman behar diogu.

Euskal Herrian zabaldu berri den fase politiko berriak horretarako aukera paregabeak eskaintzen ditu eta sindikalgintza abertzaleak erabaki estrategikoak hartu behar dituela azpimarratzen da ponentzian. Erreforma eta murrizketen

erantzun egin behar zaie, baina krisia eta prozesu demokratikoa loturik doazela ahaztu gabe. Beste eredu bat eraiki ahal izateko bitarteko juridiko eta politikoez hitz egin behar da, marko juridikoaz, alegia. Horretarako, alternatiba bada goela kontuan hartuta, hori gauzatzeko nolako aliantzak bultzatuko ditugun da datozen urteetarako erronka nagusia eta ponentzian horretarako proposamenak egiten dira.

Lanaren eta aberastasunaren banaketa justuago batean oinarritzen den beste eredu sozial eta ekonomiko bat nahi duela argi utzi du euskal langileen gehiengoak eta bide horretan, ezinbestekoa da Euskal Estatu Sozialista bat eraikitzea. Hori izango da, beraz, LABen proiektu estrategikoa. Euskal Herria politikoki eta sozialki kohesio-natuko duen proiektua, alegia. Estatu horretara iristea nazio eraikuntza prozesu dinamiko bat izango da eta bizi dugun testuinguru ekonomikoak prozesu hori azkartzera behartzen gaitu.

Krisiari irtenbide propio eta demokratikoa eman behar zaio, herri moduan egin beharreko ariketa izango da hori eta eragile politiko, sindikal eta sozialen esku dago. Horregatik, bada garaia eztabaidak egiten hasteko eta iruzur ekonomiko honetatik ihes egiteko beharrezkoak diren akordioak eraikitzeko. Trantsizio fase honetarako LABen egitasmoa sozioekonomikoak ondorengo esparruak ditu ardatz: marko demokratikoa, garapen eredu aldatzeko politika ekonomiko eta sozialak, lan harremanetarako eta babes sozialerako euskal esparrua, sektore publikoaren defentsa eta bazterketa sozialaren eta pobrezia-aren kontrako neurriak.

Borroka esparru nagusi bezala negoziazio kolektiboa azpimarratzen da, izan ere, azken urteetan blokeoa izan da nagusi negoziazio kolektiboan eta azken erreformek guztiz txikitua utzi dute eskubide hau eremu pribatuan. Eremu publikoan are okerrago daude gauzak, besteak



beste, murrizketak dekretu bidez onartzen direlako eta negoziatzeko aukerarik uzten ez dutelako. Negoziazio kolektiborako marko propioa eraiki behar da

Bestalde, sindikatua lantokietatik kanpo ere erreferente izan behar dela hausnartzen da ponentzian. Gutxinaka-gutxinaka aldaketa politiko eta sozialak bultzatzeko borrokari jendea gehitzea lortu behar dugu, edo beste era batean esanda, LAB erreferente bilakatu behar da enpleguaren, sektore publikoaren eta zerbitzu sozialen defentsan, horretarako aliantzak eraikiz.

Antolakuntzaren eztabaidara gogoeta hau ekarri gero, gure antolakuntza eredia oinarritzak diren fundamentuetan nahiko definitua eta garatua badugu ere, gauza estatikoa ezin duela izan esan nahi du. Antolakuntza, ekintza sindikala edo interbentzio politikoa bezala, behin eta berriro, egokitu behar den kontzeptua da. Honekin ez dugu LABen antolakuntza eredia-

ren diseinua zalantzan jartzen, izan ere, eredu hori aldatzeko asmorik ez da ageri inolaz ere. Hala ere, gure interbentzioa garatzeko ditugun bitartekoak egokitu behar ditugula jakin badakigu, errealitate politiko eta sozio-ekonomiko aldakorrari modu eraginkor batez aurre egin nahi badiogu.

Hein handi batean, antolakuntza ponentzian jasotzen diren gogoetak eta poposamenak norabide jakin batean doaz: azken urteetan inplementatu eta garatu dugun antolakuntza eredia indartu eta sakontzeko beharra dago. Beraz, proposamen eta gogoeten helburu bakarra momentu honetan dugun eredia hobetzea da eta, era berean, egunerokoan ikusi ditugun gabezia edo disfuntzioak gainditu behar dira.

### **Alternatiba: eredu berria.**

Gure alternatiba eredu berri bat eraikitzea bada, politikak errotik aldatzea eta eredu berria

eraikitzeko bitarteko politiko eta sozialak eskuratzeko ezinbestekoa da. Zentzu honetan, indar handia behar da eta lankidetzak ematen digu horretarako aukera. Hortaz, alternatiba euskal sindikalismoan dagoela diogu, euskal langileak behar duen eraldaketa prozesua ateratzeko gai izango den sindikalismo abertzalea, alegia. Prozesu politiko baten emaitza izan behar du eta prozesu horretan goitik behera inplikaturiko den sindikalismoa behar du euskal langileak, eta LAB hor egongo da.

Sindikalismo abertzalearen gaurko erronka nagusia guztiz estrategikoa da eta Euskal Herrian abiatu den fase berrian LABen papera izango dena eztabaidatu eta finkatu behar dugu. Luzerako ikuspegiarekin egin beharreko ariketa da, hautu estrategiko sendoak egitea eskaintzen duen momentua bizi dugulako.



## Sindikatu zuzendaritza berria

<16

### Komite exekutiboa

#### Idazkari Nagusia

Ainhoa Etxaide Amorrortu

#### Idazkari Nagusiaren Ondokoa

Jabi Garnika Andueza

#### Ekintza Sindikaleko eta Negoziazio

#### Kolektiboko Idazkaria

Garbiñe Aranburu Irazusta

#### Industria Federazioko Idazkaria

Asier Imaz Quiros

#### Zerbitzu Publikoetako Federazioko Idazkaria

Arantxa Sarasola Lartategi

#### Zerbitzu Pribatuetako Federazioko Idazkaria

Xabier Ugartemendia Apraiz

#### Nazioarteko Idazkaria

Igor Urrutikoetxea Bilbao

#### Komunikazio Idazkaria

Sonia González Fernández

#### Politika sozialetako Idazkaria

Bea Martxueta Pérez

#### Enplegu Politiketako Idazkaria

Oihan Ostolaza Arruabarrena

#### Hedapen Idazkaria

Gorka Berasategi Lezana

#### Antolakuntza Idazkaria

Olatz Arozena Isasa

#### Zeharlerroak Idazkaria

Izaskun García Bordagarai

### Idazkaritza konfederalak

#### Prestakuntza Idazkaria

Jagoba Zulueta Berastegi

#### Ingurumen Idazkaria

Urtzi Ostolozaga Arrien

#### Euskara Idazkaria

Eduarne Larrañaga Celada

#### Emakume Idazkaria

Zalao Ibeas de la Cruz

#### Lan osasun Idazkaria

Ibon Zubiela Martín

#### Gai Juridikoetarako Idazkaria

Pazis García Ortega

#### Politika ekonomikoetako Idazkaria

Rafa Izquierdo Sánchez

### Eskualdeko idazkariak

#### Aiara:

Koldo Urkixo Llano

#### Buruntza-Goierri:

Oihana Lopetegui Aranguren

#### Bilbo:

Marijo Romero Martínez

#### Busturialdea-Lea Artibai:

Aitziber Barandika Basaldua

#### Debaldea:

José Ramón Kortabarría Garitano

#### Donostia:

Lurdes Eraso Iturrioz

#### Durungaldea:

Eulate Zilonizaurrekoetxea Uribarren

#### Erribera-Erdialdea:

Oskar Goldaraz Moreno

#### Eskumaldea:

Iratxe Azkue Reinares

#### Ezkerraldea:

Eduarne Oliver Cayero

#### Gasteiz-Lautada-Errioxa:

Gotzon Kortazar Pipaon

#### Hego Uribe-Arratia:

Dabid Lizarralde Palacios

#### Ipar Euskal Herria:

Eñaut Aramendi

#### Iruñaldea-Pirineoak:

Igor Arroyo Leatxe

#### Oarso-Bidasoa:

Zorion Ortigosa Arruti

#### Sakana-Larraun:

Gaizka Uharte Balda

#### Urola Kosta:

Aitzol Aristorena Arrieta



## Konpromisoa, antolakuntza, borroka, **Euskal Estatu Sozialista** eraikitzaera goaz

Hauxe da gure proiektu estrategikoa Euskal Herria politikoki egituratzeko eta sozialki kohesionatzeko. Euskal ekonomiaren kontrol politiko eta soziala eskuratzeari ahalbidetu behar duen proiektua da, hain zuzen ere, Euskal Herrian bizi eta lan egiten dugun pertsona guztien interes kolektiboen zerbitzura jartzeko proiektua. Bide luze baten emaitza izango da estatuaren eraikuntzarena, baina LABek oso argi ikusten du prozesu hori azkartzeko aukerak ematen dituen tes-tuingurua bizi dugula.

Iruzur ekonomiko honekin argi geratu da Europako Batasunaren proiektu kapitalistak porrot egin duela. "Bitarteko publiko guztiak sistema finantzio-aren eta multinazional handien esku jartzen hamarkadak egin dituzte hauek neurririk gabe espekulatu zezaten eta orain langileok larruz ari gara ordaintzen proiektuaren porrota Europa osoan", gogorarazi zuen Etxaidek. Hartu dai-tekeen biderik okerrera hartu dute, herritarren borondatearen kontra, ez baita zilegia gure etorkizuna krisi hau sortu duen sistema finantzieroa salbatzeko zorpetzea ezta herritarrak probreziara kondenatzea ere. Estatuak ez dute zer eskaini Euskal Herrian dagoen alternatiba goseari, are gehiago, oztopoa dira herritarrok eskatzen ditugun aldaketak burutu ahal izateko eta benetako zama bilakatu dira gure interes ekonomiko eta sozialak garatzeko orduan.

Euskal Estatu Sozialista bat eratzea bideragarria izateko oinarrizko baldintza ondorengoa da: euskal herritarren borondatea. Hortaz, independentziaren aldeko hautua geroz eta zabalagoa izatea da LABen helburua. Atxikimendua eta babes soziala, aldiz, ez dira nahikoa suertatzen. Gaur ditugun mugak eta oztopoak gainditzeko aukerak emango dizkigun strategiarekin jardutea behar-beharrezkoa dugu independentziaren bidea jorratzeko. Horregatik, ezinbestekoa da gaurko egoera iraultzeko helburua duen estrategia izatea. Ildo honetan, Ekintza Sindikaleko arduraduna den Garbiñe Arabanburuk ponentzia politiko-sindikala aurkeztu zuenean aldarrikatu zuen moduan, burujabetza prozesuan denbora galtzerik ez da, izan ere, "hartzen ari diren erabaki guztiak langileon beharren kontrako norabidean doaz eta zenbat eta gehiago atzera egiten dugun orain, gero eta zailagoa izango dugu ondoren beste eredu sozial eta ekonomiko bat eraikitzea".

Honegatik, LABek anbizio osoz heldu nahi dio independentziaren bidea egiteko hautuari eta VIII. Biltzar Nagusi hau mugarrizko proiektua eraberi-

tzeko. Estatuaren eratzeko Euskal Herriaren indarrak, ahuleziak, aukerak eta zailtasunak zeintzuk diren identifikatzeko ikerketa bat burutzen ari gara gure estrategian sakondu ahal izateko. Estrategia eraginkor eta erreala definitzea da gure helburua, gaurko egoeratik abiatzen dena eta ditugun arazoaren aurrean egiturazko konponbideak eraikiz egin behar dena.

Hortaz, marko berri bat eraiki behar dugu langileon eskubideak ziurtatzeko bitartekoak ezin direlako albo batean geratu. Bidegurutze batean gaudelarik, LABek borrokatuko dituenak argi dituela atera da kongresutik. Gatazkari konponbide demokratiko bat eman behar zaio gure etorkizunaz libre eta ingere-tziarik gabe erabakitzeko. Aldaketa prozesua ahalik eta gehien azkartu beharra dago estatuak hartu duten bidean ito ez gaitzen. Martxan da jada erantzunak emango dituen prozesu soberanista, urrats handiak eman ditugu azken urteetan eta baldintzak badaude aurrera egiteko. LAB ez da begira geratuko, prozesu horren eragilea izango baita. Aldaketa prozesuan goitik behera inplikatu behar da euskal sindikalgintza eta euskal langileriak gehiengo sindikal indartsu bat behar du.

Anbizio handiz hartu beharreko erronken aurrean gaude, beraz. Aldaketak lortzeko borroka asko egin beharko da eta borroka izango da hortaz gure hurrengo urteetako ardatza. Lantokietan zein lantokietatik kanpo, konfrontazioa kapitalari boterea borrokatzeko. Kongresua ixteko interbentzioan LABeko Idazkari Nagusia den Ainhoa Etxaidek aldarrikatu zuen bezala, "gure ibilbide historikoak eman digun zilegitasunean eta sinesgarritasunean dago gaur borrokatzeko dugun indarraren oinarria. Horregatik, orain da indar hori guztia askatzeko eta Euskal Herriak behar duen prozesuari begira jartzeko garaia.

### **Inplikazioa lortzeko eremu naturala da eskualdea.**

Mundua ulertzeko eta artikulatzeko moduak erabat aldatu dira eta aldaketa horretan lan mundua ez da salbuespen bat. Duela bost, hamar edo hogeitau urte ezagutu eta izan ditugun balore edo arauak desagertu egin dira. Beste askoren artean, enpleguaren suntsiketa, ongizate sistemaren desagitea edota murrizketa sozialak nonahi ematen ari dira. Horregatik, egoera honetan lan munduan betidanik egon diren baloreak aldarrikatzea, justizia soziala, elkartasuna edo bestelako eredu soziala eraikitzea oso garrantzitsua da.

Hau guztia aurrera eramateko, ezinbestean, estrategia honen alde dauden erakundearen papera aldarrikatu beharra dago eta inoiz baino gehiago antolatutak egoteak berebiziko balio politiko eta estrategikoa du. Antolakuntza eredu ez da aldatu behar, baina egokitzeko gauza izan behar da. Antolakuntzak dinamikoa behar du izan. Abiadura bizian dena aldatzen ari den honetan, antolatze modua martxan ipini behar ditugun dinamiken mesedetan garatu behar dugu. Eremu politikoan aldaketak behetik gora etorri behar direla esaten dugu eta VII. Biltzarretik aldaketak borroka eragin behar direla konbentziturik gaude. Horretarako eskualdearen papera indartu behar da. Izan ere, eskualdeetan sortzen eta garatzen dira borroka horiek, sektorialak zein sozialak izan, eta horren adibideak izan baditugu: esaterako, Ezkerraldean edo Sakanan abiatutako dinamika. Hitz bitan: inplikazio soziala lortzeko eremu naturala da eskualdea. Erronka, beraz, sindikatuko egitura guztiak erabakietan integratzea izango da, behetik gorako komunikazioari bide zabala eginez.

# gogoan izan

# AGEN

El rescate constituye un auténtico golpe de Estado bajo la apariencia de ayuda a la banca. A partir de ahora, el gobierno Rajoy hará lo que digan la Troika y el gobierno alemán. El federalismo de Merkel (“queremos más Europa... y los Estados tendrán que ceder soberanía”) es una manera amable de definir una relación colonial en la que a España le toca ahora ser la colonia.

Vinçent Navarro

18>19



## **PRESO ETA IHESLARIAK HERRIRATZEAREN ALDEKO OLATUA**

**Udan ere aldarrikapenok ez dute etenik izango.**

Horrela, Herrira egunak ospatuko dira hainbat txokota, herri eta auzoetako bilguneek antolatuta. Egitarau zabalak eta ezberdinak izango dira, tartean kontzertuak, ekimen deigarriak, bazkariak e.a. Jaietan ere euskal preso eta iheslarien herriratzea aldarrikatzea izango dute xede egun hauek.

Bestalde, manifestazioa burutuko du Herrira mugimenduak Baionan, datorren urriaren 13an, 16:30etan Euskaldunen plazatik hasita.

Aldarrikapena, mila aldiz errepikatua, “Hurbildu bakera. Giza eskubide guztiak, euskal presoak Euskal Herrira”.

Datorren urtean, 2013ko urtarrilaren 12an mobilizazio erraldoia egin nahi du Herrira-k euskal preso politikoek eskubideen alde. Azken urteotan data hauen bueltan aldarrikapen honen alde bildu den jendetza handia izan da, gizartearen zati handi batek duen borondatearen erakusle izan delarik.



## **INDEPENDENTZIARAKO ARRAZOIAK BILTZEN, “BAGOAZ”**

**Auzolanean oinarrituta,** Euskal Herriaren independentziaren alde dauden arrazoiak bilduko dituen liburua osatzeko proiektua jarri du abian Independentistak sareak, “Bagoaz” izena duena.


Independentziaren alde dauden arrazoiak liburu bat osatzea da helburua eta horren alde dauden ekarpenak jaso nahi dituzte. Horrez gain, Independentista sareak, Euskal Herriko bost hiriburretan eztabaida saioak egingo ditu datozen hilabeteetan.

Ingurura begiratzen badugu, momentu honetan inoiz baino faktore gehiago ematen dira independentziarako: nazioarteko eztabaida (Eskoziako erreferendumezko urratsak, adibidez), krisi ekonomikoaren ondorioz Estatu espainol eta frantsesean ez dago etorkizunik, Gernikako bonbardaketaren eta Nafarroako konkistaren urteurrenek eztabaida historikoa piztu dute eta, azkenik, Euskal Herrian bizi den aro politiko berrian proiektu politiko guztien eztabaida ematen ari da.



## **URRIAK 11: IKASLEEN GREBA OROKORRA**

**Ikasle Abertzaleak,** herrialde katalanetako SEPC ikasle antolakundearekin batera sustatu dute greba orokor egun hau irakaskuntza osoan. Eurekin bat Estatuko beste hainbat ikasle taldek egin dute bat, hala nola Andaluziako jaleo, galiziako Liga Estudiantil, Kantabriako Regüelta edota Madrileko Yesca. Irakaskuntza sistemari geratzen zaion publikotasun apurra eta formazioa ordaindu ahal dutenentzat bakarrik izan dadila dago PPren gobernuaren jo puntuan. Inposatu nahi dizkiguten neurri eta erreforma hauen guztien aurrean, ikasleek burujabetza exijituko dute urriaren 11an, Euskal Herria hezkuntzatik ere eraiki behar dugulako aldarriaz.



### **EGIN DEZAGUN LAN EUSKARAZ**

**Egoera ekonomikoak** amaiera gabeko zurrumbilo batean murgiltzen gaituen arren helburuak garbi izaten jarraitzen du LABek eta orain arte egin bezala langileria eta lan mundua euskalduntzeko konpromisoari eusten dio. Aurten 35.000 ikasle inguru ibili dira euskaltegi eta zentro ezberdinetan euskara ikasi eta praktikatzen. Datorren ikasturteari begira Euskal Herriko euskaltegi eta autoikaskuntza zentroak orain arteko eskaintza zabaldu eta berritzeko ahaleginak egiten ari dira bakoitzaren behar eta aukerei ahalik eta modu egokien erantzuteko. Horrela, betiko euskaratze eta alfabetatze ikastaroetaz gain mailak prestatzeko ikastaroak, mintza praktikak edo itzulpen teknikak lantzeko ikastaroak proposatzen dituzte modu presentzialean zein nork bere etxe edo lanpostutik egiteko. Beraz, euskaraz lan eta bizi nahi baduzu Euskal Herriko euskaltegi edo autoikaskuntza zentretako atea zabalik topatuko dituzu.



### **ESAIT-EN XII. MENDI MARTXA**

**Euskal Herria-Eslovakia emakumezko futbol partidua** eta txirrindularientzako Iratiko Tourraren ondoren, badator ESAITen XII. mendi martxa. Oraingoan, uztailaren 28an abiatuko da Bidaxunen, eta zortzi egunetako ibilbidearen ostean, Donostian bukatuko da abuztuaren 4ean. Horrela, Aiherra, Irisarri, Donibane Garazi, Aldude, Arraiotz eta Igantzi zeharkatuko ditu ESAITek bere aldarrikapenak txoko guztietara zabalduz. Gaztelarrek Nafarroako erreinua konkistatu zutela 500 urte betetzen diren honetan, Nafarroa bizirik dagoela frogatu ahal izango da ibilbide guztian zehar. Hiru gune nagusi izango dira ibilbidean zehar: Bidaxunen lehena. Bertan, Agramontarren gazteluaren gibelean emango diogun hasiera edizio honetako Mendi Martxar. Bigarrena, Donibane Garazi, Behe Nafarroako herri erreferentziala, Hirugarrenik, Donostia, jai giro paregabearen amaitzeko.



### **LEGEZTAPENAREN ONDOREN, SORTUREN ERATZE PROZESUA HERRI ETA AUZOETAN**

Duela urtebete eta lau hilabete estatutuak jendaurrean aurkeztu zituenetik blokeatuta izan dute alderdiaren legeztapena Espainiako Auzitegi Gorenak. Duela gutxi lortutako legeztapena, hamarkada oso batez legez kanporatzeen aurka buruturiko borrokaren emaitza da. Hala ere, salbuespen egoerak eta gabezia demokratikoen indarrean diraute gure herrian. Gainera, lupaz begiratuko dute Sorturen jarduera, horretarako baldintza bereziak zehaztu baitituzte. Hala ere, norabide egokian doan urratsa da, ilegalizazio eta salbuespen egoeraren amaieran abiapuntua delako. Izan ere, indar politiko legalik gabe egon diren milaka abertzale eta ezker-tiarrentzat berri pozgarria da legeztapena, orain arteko esku-bide urraketa neurri batean arintzen duelako, Euskal Herriak bizi duen prozesu politiko demokratikoa ere indartuz. Legeztapenaren ondoren, eratze prozesuari ekingo dio Sortuk, egun, estatutuak eta izena baitira gaur egun indarrean dituen tresna bakarrak. Herri eta auzo guztietara zabalduko da prozesua. Horrela, dei egin diete abertzale eta ezker-tiarrei sortzaile izateko eta eraketa prozesuan parte hartzeko. Horretarako, herriz-herri eta auzoz-auzo datozen asteetan "sortzaile" bihurtzeko fitxak banatuko dituzte sustatzaileek. Bestalde, adierazi dute ideien borrokan oinarrituko dela fitxa bidezko eztabaida prozesua, metodologia parte hartzaile, ireki eta sortzailez burutuko dena.



<20

## 500 urte eta gero Nafarroa bizirik

**NAFARROA EZTABAIDAREN ERDIGUNEAN. KONKISTA ALA BORONDATEZKO ANEXIOA? BOSKARREN MENDEURRENAREN HARIRA EGINDAKO EKITALDIETAN BI IKUSPEGI AGERTZEN DIRA, LEHIAN.** “Borondatezko anexioaren” ingurukoa bata, egungo botere instituzionaletan isla duena, Nafarroa “foral eta espainiarraren” alde egiten duena inolako lotsa barik. Herritarragoa da bigarrena, konkistari bere izenetik deitzen diona eta erasoak eraso, bizirik dagoela aldarrikatzen duena eta burujabetzan oinarritutako geroa urratu nahi duena. Nafarroa bizirik 1512-2012 ekimena bigarren ikuspuntu hau zabaltzeko egin du lana, isiltasun eta zentsura ofizialaren gainetik, etxez-etxe milaka egunkari zabalduz eta hamai-ka ekimen burutuz. Azken honen erakusgarri, ekainaren 16an “Nafarroa bizirik” lemapean egindako manifestazioa. Bertan elkartutako milaka lagunek herri askea aldarrikatu zuten, bere buruaren eta geroaren jabe izan nahi duen herria.

1512an konkistatu zuten Nafarroa, erresuma independientea, Gaztelako tropek. Sua, burdina eta zapalketa nafar independentziaren kontra. Indarraren arrazoia. Bertakoek ez zuten

zapalketa gogo onez hartu. Ondoren etorri ziren altxamendu ezberdinak, eta orduko gaztelarrek egungo espainolen metodo berdinekin egin zieten aurre, gartzela, deserriratzea eta heriotzarekin. Nortasun kolektiboa ezabatzeko operazio militarra.

Konkista militarrek historiaren faltsutzeari bide eman zion. Zapalduak gogo onez onartu behar zuten zapalkuntza. Konkista militarra “borondatezko anexio” bilakatu zen, ez omen zen ez konkista, ez zapalketa ez antzekorik egon. Herritarren borrokarako kemena makurrarazi behar zen, etsipena hedatu. Egia omen da gerretako lehen biktima eta irabazleek idazten dute historia; idatzi, bihurritu, aldatu. Ez zen nahikoa edozein erantzun ezabatzea, gazteluak edo herriak txikitzea eta biztanleria erreprimitzea. Zapalketaren kronika itxuraldatu beharra zegoen eta borondatezko anexioa indartu.

Denborarekin, iraganaren faltsutze hau funtsezko osagai bihurtu zen Euskal Herria zatitzeko estrategiaren barruan eta Nafarroa “foral eta espainiarraren defentsan”. Begibistakoa da ez dituztela euren helburuak bete.

# info iraultzen

## Liburuak

Euskal Estatuari bidea zabaltzen



Euskal Estatuari buruzko hiru liburuxka argitaratuko ditu Ipar Hegoa fundazioak 2012ko urrian. Euskaraz izango diren argitalpen hauek LAB sindikatuaren egoitzetan zein [www.iparhegoafundazioa.org](http://www.iparhegoafundazioa.org) eta [www.labsindikatu.org](http://www.labsindikatu.org) web orrialdetan egongo dira eskuragarri.

EHUko irakasle diren Xabier Isasi, Gaindegiaren lehendakaria; Ane Larrinaga, Soziologian doktorea; Iñaki Antiguedad, Hidrologian katedraduna; Julen Zabalo, Geografian doktorea; Mario Zubiaga, Politika Zientzietan doktorea; eta, Txoli Mateos, Soziologian doktorea, izan dira azterlanean parte hartu duten aditueta batak. Hiru izan dira landutako gaiak eta gai-arlo hauen arabera, azterlana hiru liburukietan banatu dute: Herrigintza eta Erakundeak,

Herritartasuna eta Kultura, eta Lurralde eta Sozioekonomia.

Ipar Hegoa fundazioak “Euskal Estatuari bidea zabaltzen” izenburupean aurkeztu duen azterlan honen bitartez, ekarpen kualifikatu bat egin nahi dio euskal Estatu eraikitze beharri eta horren bideragarritasunari. Ikasketa sindikaletarako fundazioa den Ipar Hegoak, besteren artean, Euskal Herriarentzat interesa duten gai politiko eta sozialei buruz azterketak eta hausnarketak egitea du helburu. Hausnarketa horien inguruko eztabaidak sustatzeko asmoarekin, hain zuzen ere.

Europar eta munduan euskal Estatu batek eraikitze izango lituzkeen aukerez eta gabeziak egiten da gogoeta eta azterlanean agertzen diren hainbat arazori irtenbidea emateko Estatu ezinbesteko tresna politikoa dela erakutsi nahi du. Argitalpenean Txoli Mateosek aipatzen duen bezala, “Estatu guztiak ez dira berdinak eta ez dira berdinak estatuko herritarrak batzen dituen loturak, hortaz, lehenengo galdera baldin bada nolako estatua nahi dugun, bigarrena litzateke nolako herritarrak izango garen, eta badago zer hausnartu hari horretatik tiraka”.

Euskal Estatuaren errebindikazioa edukiz hornitzeko eta horrelako apustu bat itxuratzeko beharrezkoa den oinarri materiala nahi dute izan azterlan honetan jasotako ekarpen teoriokoek. Zentzu honetan, Ipar Hegoa fundazioaren

ustetan lan honek agerian utzi nahi du Euskal Herriak oinarritzko potentzialtasunak badituela, gaur egun eta orain Estatu bat europar Estatu multzoak eraikitzeko.

## Info

Negociación colectiva



En este INFO hacemos hincapié en la necesidad de defender nuestra negociación colectiva en todas las mesas de negociación. LAB, mediante un reparto masivo de este informe, ha trasladado a todos los sindicatos de Euskal Herria una propuesta para defender este derecho de todos y todas las trabajadoras. El objetivo de esta propuesta es trasladar la siguiente idea: es posible defender nuestros convenios si actuamos con responsabilidad. En definitiva, desde LAB creemos que es responsabilidad y obligación de todos los sindicatos de Euskal Herria defender, por medio de este tipo de propuestas, el marco propio de negociación colectiva.

Se entiende que es necesario un acuerdo de mínimos entre los sindicatos para defender el derecho a la negociación colectiva y crear un modelo propio. Es por ello que, LAB ha tomado la iniciativa y ha propuesto al resto de sindicatos un acuerdo que frenaría los efectos más nocivos de la reforma laboral que tiene como objetivo anular la negociación colectiva.

## Haritik

1512-2012,  
oroimenaren bataila

Borroka ideologiko biziko urtea dugu 2012a. Euskal Herriaren etorkizunerako alternatibei buruzko eztabaida eta oroimenaren inguruko borroka elkartu eta gurutzatzen direlako. Zentzu honetan, Ipar Hegoa Fundazioak “1512-2012, oroimenaren bataila” izenburupean argitaratzen duen Haritik berri honekin bere ekarpena egin nahi dio eztabaida prozesuari.

Nafarroaren konkistaren atzean ezkutatzen ziren interesak eta une bakoitzeko beharretara egokitu izan dituzten kontakizunen inposaketak aztertzen dira lan honetan. Argitalpenak oroimena eta etorkizuna uztartzen duen ekarpena izatea du helburu. Lana Floren Aoizek burutu du, bere jardueran Euskal Herriaren historia zein egungo egoera eta etorkizuna aztertzen dituen idazle eta analista politikoa.

## Gazta zati bat. Dokumentala, Idiazabalgo Nazioen Mundua.



Aurten Donostiako Giza Eskubideen X. Zinemaldian aurkeztutako dokumental hau Idiazabalgo Nazioen Mundua herri ekimenaren eskutik etorri da. Lau urteko ibilbidea du aipatu mugimenduak, Idiazabalen sortuta, Goierrin barrena Euskal Herri osoraino heldu dena. Askotariko herritarrak biltzen ditu bere baitan; herri kirola, euskal dantzak, euskal musika eta oro har euskal kultura eta izaera gustuko dituzten era guztietako pertsonak: Euskal Herria aldarrikatzeaz gain, nazio guztiek duten erabakitze eskubidea aldarrikatu nahi dute, Eskoziara ere begiratu.

Jon Maia aritu da zuzendari lanetan.

Autodeterminazio eskubidea da dokumentalaren ardatza, euskal gatazka, baina modu berritzailean aurkeztuta, izan ere, "autodeterminazioa kontu garrantzizuegia da politikarien esku bakarrik uzteko" protagonistetako bati entzun ahal diogun moduan. Hortik dokumentalaren azpititulua, "ikuslea historiaren protagonista bihurtzen duen dokumentala". Aipatu bezala, gertakizun handien hurbileko begirada eskaintzen du, historia handia letra txikiarekin kontaktzen du, gertutasunez, intimismoz, umorez... Historiaren ohiko kontakteretatik aparte, giza faktorea da azpimarratzen dena, herriko jendea. Normalean ikusgai ez dagoena dugu ikusgai, historiaren "making off"-a edo. Herritar xumeengan jartzen ditu fokuak. Iragan gatazkatsua eta iluna atzean utzi eta aurrera begira era positiboan jartzen gaituen istorioa da. Euskal Herriko aretoetatik aparte, New Yorken ere estreinatu da. <http://www.gaztazatibat.eu/>

<22

## Internet: [www.basqueinfo.net](http://www.basqueinfo.net). Nuevo blog de Gaindegia

Gaindegia es el observatorio para el desarrollo económico y social de Euskal Herria. Su labor es alimentar conocimientos y opiniones que impulsen un desarrollo económico y social sostenible para nuestro país mediante la investigación y el debate.



Sus líneas de trabajo son realizar el diagnóstico de la realidad económica y social de Euskal Herria, crear redes entre los agentes económicos y sociales y fomentar el intercambio de opiniones e ideas.

La pasada primavera presentaron un nuevo blog para proporcionar información y debatir sobre diferentes temas de carácter económico y social. En el mismo, se proporcionan múltiples datos sobre la realidad socioeconómica de Euskal Herria, análisis, rankings municipales, entrevistas, foro de debate, estudios e informes y hemeroteca. También tienen un interesante y útil apartado dedicado a mapas.

Ezetz topatu eskualdeetako idazkari guztien abizenak





jarraitu  
**LABsindikatu**  
 sarean

**webgunea:** [www.labsindikatu.org](http://www.labsindikatu.org)  
**bloga:** [www.labetik.org](http://www.labetik.org)

youtube  
 facebook  
 issuu

flickr  
 twitter  
 scribd

**Euskal Herriak**  
***hitza* eta**  
**✓ *erabakia***



**GREBA** orokorra  
**irailak**  
**26**

